



**Arantza  
Moreno,  
urrez beteriko  
garaipen-zerrenda**

**drogeteniturri**

**TOKIKOM**

Ermua eta Mallabiko aldizkaria 192. alea 2011ko uztaila

# GREMIOEN GIDA

**DEKORAZIOA**  
OBREN KOORDINAZIOA \* MARIAN CARRACEDO DEKORATZABILEA

dekorazio estudioa

**trastévere**  
barruko dekorazioa

san pelaio, 26 ermua  
tel/faxa. 943 17 90 89  
trastevere@wanadoo.es

**ITURGINTZA**

FONTANERIA  
**B. DE DIOS**

Baimendutako instalatzaileak  
iturgintza, gasa, kalefakzioa eta  
petrolio produktuak  
Komunetako altzariak  
eta osagarriak

Gipuzkoa etorb., 48 - behea  
Tel/Fax. 943 17 01 09  
E-maila: bdedios@euskalnet.net

**ELEKTRIZITATEA**

**BETA**

ARGIZTAPENA  
ELEKTRIZITATEA

- Proiektuak
- Instalazioak
- Erreformak
- Kalefakzioa
- Gaueko tarifa
- Erradiadore elektrikoak

Diputazio, 13      943 17 65 25  
689 23 31 71

**ERROTULAZIOA**

**ROTEK**  
rótulos

- Argi errotuloak
- Autoendako errotuloak
- Barne errotulazioa
- Irudi korporatiboa
- Neoia
- Inpresio digitala formato handian

Goitondo behekoa industrialdea  
C-1 partzela, 5 behea (Mallabia)  
eta Faxa: 943 17 00 36 • rotek@telefonica.net

**PERTSIANAK**

TOLDOS Y PERSIANAS **ORBE**

- MUNTAIA ETA KONPONKETA
- MOTORIZAZIOA
- PERTSIANA DEKORATIBOAK
- PERTSIANA BILGARRIAK
- SEGURTASUN PERTSIANAK.

TAILERRA:  
Zearreko buelta 2  
943 17 66 34  
630 01 13 41

ERAKUSKETA: Karabixa, 1  
Tel. 943 17 98 60

**AROZTEGIA**

**Iraner**  
Puertas EDER Carpinteria

- Ateak, horma-armairuak, tarimak...
- Burdindegiko artikulak salgai
- Giltzen kopiak, ebanisteria
- Gremioen koordinazioa

Bizkaia etorbidea 10, behea Ermua. Tel. 943174925 - iranercb@gmail.com

**ITURGINTZA**  
ITURGINTZA, GAS ETA KALEFAKZIOA

**LUIS VALLE**

Bainugelen erakusketa  
943 17 15 56

Tailerra  
943 17 23 56

Goienkale z/g

**TELEKOMUNIKAZIOA**


**Cable Spot**

Zure antena TDTrA egokitu.  
**ETEN ANALOGIKOAK  
GERTU DAGO!**

- Antena kolektiboak
- Atezain automatikoak
- Telefonía mugikorra.
- Zuntz-optikoa.
- Banda zabala.
- Kable telebista...

euskaltel

ERMUA. San Pelayo 4 behea.  
943 172314



**Gremioen Gidan  
publizitatea jarri nahi baduzu...  
Deitu**

**943 17 93 50**

edo **688 63 28 76**

**ARGITARATZAILEA:**

Euskal Birusa  
Elkarte Kulturala.

**HELBIDEA:**

Erdikokale 2, 1. (Elexoste)  
247 posta-kutxa  
943 17 93 50.  
drogeten@gmail.com  
www.euskalbirusa.org

**ERREDAKZIO TALDEA:**

Alazne Aiestaran, Igone Amesti, Ibaia Azagirre, Estibalitz González, Asier Ibaibarriaga eta Dorleta Vidal.

**KOORDINAZIOA****ETA MAKETAZIOA:**

Dorleta Vidal.

**HIZKUNTZ ARDURADUNA:**

Alazne Aiestaran.

**AZALEKO ARGAZKIA:**

Alazne Aiestaran.

**LAGUNTZAILEAK:**

Amaia Arriaga, Eurne Bilbao, Lolo García, Fede Iturriagagoitia, Patxi López, Pello Mugarza, Valentín Mugarza eta Jabí Vidal.

**ARGAZKIAK:**

Igone Amesti, Iker Araiztegi, Ibaia Azagirre, Estibalitz González, Asier Ibaibarriaga, IMH, Alberto Moreno, Udal Liburutegia, Jon Uribe eta Dorleta Vidal.

**PUBLIZITATEA:**

688 63 28 76.

**INPRIMATEGIA:**

Gertu Koop. (Oñati).

**BANAKETA:**

Tamara Lorente, Nora Mateos eta Xabat Uzuriaga.

**TIRADA:**

2.250 ale.

**ISSN:**

11 33-973X.

**LEGE GORDAILUA:**

SS-213/94.

*Drogeteniturrrik ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako iritzien erantzukizunik.*

# Bertoko hegaztiak

...Fede Iturriagagoitiak batuta

## BUZTANIKARA HORIA *Lavandera cascadeña Motacilla cinerea*

Horia paparra, buztan luzekina dardarti beti... Ur inguruetako bizilagun honek korrante biziak maite ditu endemas, baina ur-potzu geldietan ere ikusterik badago. Eitzako errekan, Mallabitik Ermurakoan... mutikotan, errekek bistan zeudela, Errotabarri inguruko hormazu-loetan habia egiten ikusita nago. Emea liluratzeko, kurioso-kurioso hegan doala arra, buztana abaniko legez zabaltzen du edo antxixiketan joaten zaio bere poxpolinari, paparra harro baino harroago jarrita. Gerora emearen kargua da arrautzak berotzearena; arra arduratuko da bikotearen txorikumeak elikatzeaz: aitatxok habira ekarritako euli, eltxo zein sorgin-orratz hegalariaik, haiek bai gozoak!



## Hilabete honetan...

TALDE-TXOKO .....4	KIROLZALE .....16-17
Emakumearen Sustapen Zentroaren Ikasle Ohien Elkarte	Arantza Moreno
ELKARRIZKETA .....5-7	IRITZIA .....18
Maite Fuertes eta Mireia Carretero	Nora zoaz oporretan?
<b>ANDRA MARI JAIK</b> ..8	SALEROSKETAK .....19
MALLABIAN ZER? .....9	Saldu, erosi edo agurtu
'Envasa' itxi da	ANTZINAKOAK.....20
MOTZEAN .....10	Ermuko eta Mallabiko argazkiak
Eleazar Raya saritua	KALEKO INKESTA .....21
<b>SANTIXAUAK</b> ...11-14	Ermuko eta Mallabiko jendearen iritziak
BOTEPRONTOAN .....15	AGENDA .....22
Marian Rodríguez	Abuztuko agenda

### Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA  
ERMUA HIRIKO UDALA



MALLABIKO UDALA



Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

# Emakumearen Sustapen Zentroaren Ikasle Ohien Elkarte

Gaur egun harremanik ez duten arren, Emakumearen Sustapen Zentroarekin lotura estua izan zuen elkarte honek hasieran. Garai horretan, Emakumearen Etxea martxan jartzeko lan handia egin zuen Emakumearen Asanbladarekin batera eta herrian konpromiso soziala pizten lagundu zuen, besteak beste.

## - Zein urtetan sortu zen taldea?

80. hamarkadako amaieran lortu genuen legezko egitea. Aurretik, Emakumearen Sustapen Zentroko formazioa bukatzen zuten ikasle bi aukeratzen ziren urtero eta horiek arduratzen ziren ikasle ohien elkarte kudeatzeaz.

## - Zenbat kide zarete?

Denborak aurrera egin ahala aldaketa nabarmenak egon dira gizartean eta, batez ere, emakumeen formazio beharretan, eta horrek eragina izan du gure taldekide kopuruan. Gaur egun 30 bazkide inguru ditugu eta horietatik seik zuzendaritza batzordea osatzen dugu. Guztiok 6 euroko kuota ordaintzen dugu urtean.

## - Zeintzuk dira zuen helburuak?

Sortu ginenean finkatu genituen helburu berdinak ditugu oraindik ere:



Zuzendaritza batzordeko kide batzuk

emakumeek beste inon jaso ezin dituzten ezagutzak eskuragarri ipintzea. Horretarako hitzaldiak eta ikastaroak antolatzen ditugu. Aurten elkartekoa ez den pertsona bat arduratzen da horiek guztiak kudeatzeaz, gure iradokizunak jarraituz, jakina.

## - Zeintzuk gai jorratzen dituzue ikastaro horietan?

Denetarik: medikuntza, politika, legeak, heziketa, hirigintza... Jendearen eskaerara moldatzen gara.

## - Txangoak egiten dituzue?

Bai, bi txango egiten ditugu urtero. Udaberrian txango kulturala egiten da eta aurtengoan 'AlhóndigaBilbao' bisi-

tatzeko aukera izan dugu. Ikasturte amaieran, beste txango bat egiten dugu: Portugalete aldera joan gara oraingoan eta 35 emakume baino gehiagok hartu dute parte.

## - Zein maiztasunekin biltzen zarete eta non?

Gaur egun Emakumearen Topalekuan biltzen gara, hilean behin.

## - Zuekin harremanetan jartzeko?

Interesa dutenek zuzendaritza batzordeko kide den Nastaren telefonora deitu dezakete (943173527) edo Emakumearen Topalekuan galdetu (Izelaieta kalean).

Dorleta Vidal

**SAN ANTONIO** OKINDEGIA  
GOZOTEGIA

Izelaieta, 40 Tel. 17 00 63  
Zubiaurre, 12 Tel. 17 38 40

**AIZ**

**AIZ**  
Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

**ZABAL**

**ERMUA**

**GARAGARDO** CERYECERIA  
NHEV

**ZYTik**

OTARTEKO eta  
IMPORTAZIOZKO  
GARAGARDOtan  
berezitasuna

943 17 39 78



**Maitek eta Mireiak, bularreko minbizia izan dute:**

## **“Bizitzan dituzun perspektiba guztiak bertan behera geratzen dira”**

Maite Fuertes ermuarrak eta Mireia Carretero bergararrak kimioterapia saio batean elkar ezagutu zuten. Hainbat gauza dute komunean: 28 urte dituzte, Haur Hezkuntzan diplomatuak dira eta bularreko minbizia izan dute. Emakume helduagoei eragiten dien gaixotasun honen aurrean ‘galduta’ sentitu dira eta minak, beldurrak, itxaropenak eta etorkizuneko zalantzak konpartitu dituzte itxarongeletan eta itxarongeletatik kanpo, euren artean adiskidetasun sendoa sortu delako. Familia eta lagunak bidelagun izan dituzte, baina prozesu luze honetan *“merezi duenak eutsi du bakarrik. Bestek guk baztertu ditugu edo apurka-apurka alde egiten joan dira”*, diote.

**- Nola izan zenuten gaixotasunaren berri?**

Maite Fuertes: Nik koskor bat igarri nuen bularrean eta medikuarengana joan nintzen. Berehala Donostiara bidali ninduten eta handik 3 astera kimioterapia tratamendua hasi nuen. Oso arin gertatu zen dena. Minbiziak gibela eta orno batzuetan eragin zuen eta 'kimioko' 2. saioan, minbizia erasotzailea bihurtu zela ikusi zuten, metastasia nuela.

Mireia Carretero: 2009ko azaroan bularra handituta nuela igarri nuen nik, 'patata' baten tamainako zer-bait. Mina nuen, baina urtarrikerako eman zidaten txanda. Bitartean mediku pribatu batengana joan nintzen eta ez nuela ezer esan zidan, anti-inflamatorioak eman zizkidan! Joatearren joan nintzen urtarrikerako txanda horretara eta egun berean biopsia egin zidaten.

**- Nola hartu zenuten berria?**

M.C.: Nik ezin nuen sinetsi. Hurrengo egunean lana laga behar nuela esan zidaten, lagunekin irteteari utzi... Ezer gutxi nekien gaixotasun honi buruz eta gazte izanda ez zitzaidala tokatu behar uste nuen. Ez nuen onartu nahi. Gero beldurra sentitu nuen, etorriko denaren ezjakintasunak beldurra ematen duelako. Bizitzan dituzun perspektiba guztiak bertan behe-



ra geratzen dira bat-batean.

M.F.: Gainera, ezer ez dago zure esku. Ezin duzu ezer egin egoera hobetzeko. Sekulako inpotentzia sentitzen da. Lotsa, baita ere, ileordea ipintzen duzun lehen egunean, esaterako.

**- Nola hartu zuten inguru-koek?**

M.C.: Lehen zaplastakoa zuzentzat da, baina familiak asko sufritzen du. Zure aurrean negar ez egiten saiatzen dira, baina prozesua luzea da eta fase ezberdinak daude; indarrak igo eta jaitsi egiten dira. Gure ondoan egon direnei eskerrak eman behar dizkiegu.

**- Zenbat kimioterapia saio jaso dituzue?**

M.F.: 2010eko otsailaren 3an minbizia nuela esan zidaten eta 19an 'kimioare-

kin' hasi nintzen. Abuztura bitartean 22 saio jaso nituen, astean bat.

M.C.: Ni Maiterekin batera hasi nintzen. Tumoreak, orokorrean, milimetroetan neuritzen dira eta nireak 7 zentimetro zituen tratamendua hasi nuenean, sustrai modukoak zituen eta ganglioetara zabaldu zitzaizkidan. Iazko uztailean ganglioak kendu zizkidan eta abuztuan mastektomia egin zidaten, hau da, bular osoa kendu zidaten.

**- Nola zaudete orain?**

M.F.: Zorionez, kimioterapiarekin gibela eta bizkarra sendatu zitzaizkidan eta bularreko koskorra desagertu egin zen. Ez nago sendatuta baina hobetzen noa, arrisku-tsuen pasatu dut.

M.C.: Nire kasuan, ganglio ezak linfadema izateko aukera handitzen du. Horrez gain, maiatzean bularra berregin zidaten.

**- Gaur egun zein tratamendu duzue?**

M.F.: 21 egunero Donostia-ra joan behar dugu, antigor-

putz eta hezurak sendotzeko botikak hartzera. Tratamendu hau bi urtez, gutxienez, egin beharko dugu.

**- Zeintzuk dira tratamendu horren ondorioak?**

M.F.: 5 urtetan hileko barik egon behar dugu, minbiziak hormonon menpekotasuna duelako eta 5 urteko prebentzio tartea utzi behar dugu.

M.C.: Menopausia dugu, hau da, ez dugu hilekorik, eta 50 urteko emakume baten jasaten dituen sintoma guztiak ditugu: beroaldiak, umore-aldaketak...

**- Eta 5 urte horiek pasatutakoan?**

M.C.: Ez dakite zer gertatuko den. Niri minbizia kendu didatenez, gaitza ezin da beste organo batzuetara zabaldu. Gazte izanda, hilekoa berriro izateko aukerak baidudala esan didate.

M.F.: Nire kasuan oso arriskutsua litzateke hilekoa berriro izatea, minbizia hormonaz elikatzen delako. Hala ere, ez dizu inork ezer ez ziurtatzen. Minbiziarekin

**“Minbiziarekin zerbait galtzen da beti: Mireiak bularra galdu zuen, nik ama izateko aukera”**

komunitateak  
aseguratuak

**San Pelayo**

aholkularitza  
fiskal eta juridikoa

Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04  
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

Drogeteniiturr, 192 zkia.

**Pub SCORPIO**



Zubiaurre, 21  
**ERMUA**

**Proba-Leku**  
Heapaindegia - Estetika



Probaleku 3, 1A  
**Tel. 943 17 05 42**

zerbait galtzen da beti: Mi-  
reia bularra galdu zuen eta  
nik ama biologikoa izateko  
aukera. Gaixotasun honetan  
aurrera pausuak ematen di-  
ra egunero eta hemendik  
eta 5 urtera batek daki!

**- Gaixotasunari aurre egi-  
teko modua ezberdina da  
gazte edo heldua izanda?**

M.C.: Aurre egiteko modua  
ez dakit, baina beldurrak  
bai, oso ezberdinak dira.  
Helduek bizitza 'bideratuta'  
dute, baina gure kasuan dena  
daukagu egiteke. Gaixotu  
nintzenez mutila utzi nuen  
eta momentu horretan pen-  
tsatu nuen: Nork maiteko  
nau, gaixorik, ile barik, bular  
barik? Haurdun geratu ahal  
izango naiz? Eta ezin badut  
lanik egin? Etxe bat erosi?  
Kontran, gazteok aurrera egi-  
teko aukera gehiago ditugu,

indar gehiago daukagulako.

M.F.: Nik, berriz, urtarrile-  
an utzi nuen mutilarekin.  
Orain beste pertsona bat  
ezagutzen ari naiz eta hasie-  
ratik nire gaixotasunari bu-  
ruz hitz egin behar izan diot:  
umeak ezin izango ditudala  
izan eta nire lehentasuna  
sendatzea dela, esaterako.  
Gaixotasunak betiko jarrai-  
tuko du nire bizitzan.

**- Zuk jasan duzunari buruz  
dagoeneko jasan duen  
beste batekin berba egin  
ahal izateak zer nolako  
garrantzia du?**

M.F.: Itzela. Enpatia hori  
ezinbestekoa da. Besteak  
ondoan daude, baina ezin  
dute ulertu zer nolako mina  
sentitzen duzun.

M.C.: Eta ez bakarrik mi-  
na, psikologikoki dituzun bel-  
durrei buruz berba egin de-

## “Gaixotasun hau normalizatu behar da. Ondorio latzena besterik ez da ezagutzen, hau da, heriotza”

zakezu. Hasieran, batez ere,  
zer gertatuko zaizun azaldu-  
ko dizun norbait faltan botat-  
zen da. 12 egunera ile barik  
geratuko nintzela esan zida-  
tenean, esaterako, ileordeak  
bilatzen hasi nintzenez, pro-  
tesiak non erosi, zenbat  
diru behar duzun...

**- Informazio eza sumatu  
duzue, beraz?**

M.C.: Bai. Medikuek ezin  
dizutenez ezer ziurtatu, In-  
ternetera jotzen duzu, baina  
hau hanka-sartze galanta da.  
Momentu horretan iltze go-  
riari heltzen diozu: azukrea  
duen guztia baztertu nuen  
nik, esnea, kafea... Egunero  
hartzten nuena alde batera  
laga nuen, horri botatzen  
niolako errua, eta dieta ma-  
krobiotika hasi nuen. Maitek,  
berriz, denetarik jaten zuen  
eta hori egin behar da, medi-  
kuei kasu egin eta listo!

**- Zer eskatzen diezue era-  
kundeei?**

M.F.: Informazioa. Minbi-  
ziaren Aurkako Espainiako El-  
kartera jo nuen nik, medi-  
kuarenean ez dagoelako ezta  
honen inguruko liburuxkarik!

Osasuntsu zaudenen ez zara  
honetaz kezkatzen, baina  
guztioz izan beharko genuke  
gaixotasun honen berri, tabu  
izaten ez jarraitzeko.

M.C.: Gaixotasun hori nor-  
malizatzea eskatuko nieke  
nik ere, minbiziaren ondorio  
latzena ezagutzen delako ba-  
karrik, hau da, heriotza. Bes-  
talde, burokrasia larregi da-  
go eta oso motela da, laneko  
kontuei dagokienez, esatera-  
ko. Orain ondo nago eta la-  
nean hasi nahi dut, nire egu-  
nerokotasuna berreskuratu,  
baina itxaron behar dut.

**- Eta zu Maite, noiz hasiko  
zara berriro lanean?**

M.F.: Ez dakit. Lana egin  
nahi dut, baina nire gorputzak  
ezin du, ez daukat indarrak.  
Egun txarrak izaten ditut ba-  
tzueta, minarekin, ohean  
sartu, negar egin eta mundua-  
ri agur esateko gogoz. “Bizirik  
nago, baina zein baldintza-  
tan?”, pentsatzen dut batzue-  
tan. Denbora pasatzen utzi  
behar dut eta txipa aldatu,  
gaixotasun honetan buruak  
berebiziko garrantzia du eta.

Dorleta Vidal

Maite eta bere koadrila iazko 'Bularreko Minbiziaren  
aurkako Emakumearen lasterketan', Gasteizen.



*Euskara eta euskaltegia  
egin biak zureak*

UDAL EUSKALTEGIA

Teresa Murga, 2. solairua  
Tel. 943 17 09 25

TELEFOR  
INTERNATIONAL

Zubiaurre 14  
Telef. 943 17 28 88  
48260 ERMUA

**EGUZKILORE**

**Quetzal**  
Arrapa, bitxiak,  
opariak... zer ez!

Goienkale 9 · ERMUA  
943170065

**solozabal  
tabakoak**

torrekua 1  
tel./fax: 943 17 07 33

**ALBOKA**

MUSIKA  
ESKOLA

- Akordeoia
- Biolina
- Biolontxelo
- Bonbardino
- Flauta
- Kantua
- Gitarra
- Gitarra elektrikoa
- Gitarra baxua
- Lengoia musikala
- Klarineta
- Panderoa
- Perkusioa
- Pianoa
- Saxofoia
- Trikitrixa
- Tronboia
- Tronpeta
- Txistua

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com

# Andra Mari jaiak

## ABUZTUAREN 11

### Osteguna

- 21.30: Open pilota partiduak, Mallabia I Kirol Etxean.

- 1)Txurruka-Romero
- 2)Elezkano-Aldape
- Iturbe-Elordui
- Berasaluze-Olalde

## ABUZTUAREN 13a

### Larunbata

- 22.30: Benito Lertxundi. Mallabia I Kirol Etxean.

## ABUZTUAREN 14a

### Igandea

#### UMEEN EGUNA

- 12.00-14.00 / 16.00-18.00: Umeentzako parke berezia: puzgarriak, txalupak... Parkean.

- 17.00: Nesken pala partiduak Mallabia I Kirol Etxean.

- 19.00: Txupinazoa (Orraitio Euskara Elkarteko kidea den Pello Mugarzak botako du). Ondoren Euskal Preso eta Iheslarien aldeko brindisa eta enkartelada.

- 19.30: Txokolatada plazan (Antolatzailea Errekondo Elkartea)

- 22.15: Pilota partiduak Mallabia I Kirol Etxean:

- Urrutikoetxea-Untoria //
- Olaetxea-Aretxabaleta
- Olaizola II-Aprreiz //
- Bengoetxea VI - Patxi Ruiz.

Aldaketak egon daitezke azken orduan. Sarrerak mallabitarrentzat abuztuaren 1etik 12ra udaletxean salgai, 20 eurotan. Mallabiko langabetu, ikasle eta jubilatuentzako 15 euro. Pertsona bakoitzeko 2 sarrera. Gainontzekoentzat 25 euro, leihatilan (21.30etik aurrera).

- 20.00-22.00/23.30-01.30: Luhartz taldearekin erromeria plazan.

## ABUZTUAREN 15a

### Igandea

#### ANDRA MARI eguna

- 11.00: Meza Nagusia.

Ondoren dantzariak eta bertso-lariak (Xabier Amuriza eta Beñat Ugartetxea). Plazan hasi eta frontoian amaituko dute.

- 17.30: Mallabiko XXI. 'Harri Txikia' harri-jasotze saria, Mallabiko I kirol Etxean: 100 kg-ko zilindro zaharra eta 100 kg-ko bola.

- 17.30: Tute, mus, briska eta 'burro' txapelketa tabernetan. (1. saria: 60 €; 2. saria: 30 €).

- 23.00: Su artifizialak (bouqueta).

Ondoren Garibaldi mariatxi internazionala parkean

## ABUZTUAREN 16A

### Asteartea

#### SAN ROKE EGUNA

#### NAGUSI eta KOADRILEN EGUNA


- 11.00: XII. Paella lehiaketarako izen ematea.



- 12.00 Meza Nagusia.

- 13.30 Paellen aurkezpena epaimahaiaren aurrean. Sariak: 1. saria, 160 euro eta garaikurra; 2. saria, 110 euro eta 3. saria, 60 euro.

- 14.00: Jubilatuen bazkaria probalekuan. Bazkal ostean Kupa musika taldea egongo da 18.00ak arte.



Kartel lehiaketaren irabazlea:  
Xabat Uzuriaga

- 18.00-20.00: Aizkolarien erakustaldia eta gero nagusien eta gazteen arteko herri kirol lehia Mallabia I Kirol Etxean (Antolatzailea, Txondor Herri Kirol Taldea).

Mallabiko trikitilariekin plazatik frontoira kalejira.

- 20.00-01.00: Mallabitar guztientzat txerri errea eta sagardo-tegi ibiltaria plazan. (3 pintxo euro 1, sagardoa doan).



## ABUZTUAREN

### 26, 27, 28, eta 29

- 22.00: XXIII. Idi proba txapelketa Mallabiko I Kirol Etxean.

O eta 8 urte bitarteko umeentzako moda eta puerikultura

# mimitos

Zapatak, pijamak,  
lentzeria, aulkiak,  
sehaskak, tronak...  
behar duten guztia!

Eta gainera 'Hello Kitty'-ren  
artikulu mordoa!

Probaleku 4, Ermua · ☎ 943 033 830

# T

XALAPARTA  
ABERNA

Eta asteburuetan  
pintxoak, afariak  
eta bokatak!

Erdikokale 13  
(Ermua)

- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo onddoak.
- Fritoak: urdaiazpikoa edo onddoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...

ENKARGYAK  
943 030 299



## AIALA AMESTIREN TALDIE ERLOJUPEKUEN GARAILLE

Areitio auzoko Aiala Amesti kadete gazte bere ekipoko neskekin batera, uztailaren 3en jokatutako Bizkaiko Txapelketako erlojuaren aurkako taldeko proban, garailletako bat izan zan, Elorrixotik Zaldibarrera arteko 14,5 km-ko ibilbidea burutzen. Ciclos Iturriagako neskek 25.05 minutu behar izan zittuen helmugara heltzeko. Egindako lana saritzeko taldeki-de bakotxak maillota eta garaiakurrer jaso eben.



## 35 URTEREN OSTIEN, ENVASA ITXI EGIN DA

Mallabiko industrialdien dagoen Envases Vascongados S.A. lantegia joan dan ekainaren hasieran itxi zan, Mallabia, Ermua, Eibar, Durango eta inguruetako 31 familixa kalien itxitte. 1975ien sortu zan ENVASA Goitondo poligono industriaren. 2005etik aurrera hasi zan enpresaren gainbeherie, harrezkero hainbat ERE izan dittue, halan da guztiz be lantegixek ezin izan dau aurrera egin. Bertako langilliek enpresaren aldetik ez dabe indemnazaziñorik jasoko. Urte biko langabezixari lan egindako urte bakotxeko 20 egun gehituko deutsie.



## JUAN LUIS ARREGI, KORTA SARIXETAKO IRABAZLIE

68 urteko Juan Luis Arregi mallabitarrak, Eusko Jaurlaritzaren eskutik XI. Korta Saria jaso eban joan dan ekainaren 29xen Gasteizen. Hainbat iturrik Euskadiko enpresari garrantzitsuenetarikotzat jotzen dabe Arregi. Azken urtiotan izendun hainbat enpresetako sortzaille izan da. Bere ikasketen artien goi maillako ingeniariatza teknikue eta kontrol numerikue dira aipagarrixenak.

## MALLABIKO TENISEKO OPEN TXAPELKETAN GIPUZKOARRA TXAPELDUN

Mallabiko Bastida Futbito taldiek ekainaren 6tik 25era bitartien teniseko Open Txapelketa antolatu eban. Bertan hainbat lagunek parte hartu eben. Horren artien, Aitor Mendilibar zaldibartarra eta Erik Castro mallabitarrak finalaurrekoa jokatu eben. Azkenien, finala Andoaingo Iñaki Artanok eta Ermuko Iker Araiztegik jokatu eben eta 7-5, 6-0 gaillendu zan gipuzkoarra.



Igone Amesti eta Ibaia Azagirre



**FOTOKOPIAK**  
**KOLOREZKO FOTOKOPIAK**  
**HANDIPENAK - TXIKIPENAK**  
**PLANOAK - AZALEZTAPENAK**  
**FAX PUBLIKOA**  
**INPRIMAKETAK KAMISSETATAN**

Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89

ELEKTRAGAILUENTZAKO ZERBITZU TEKNIKOAK

# EGANA

ALDAGAILUAK

GARBIGAILUAK - SUKALDEAK - HOZKAILUAK  
 LEHORGAILUAK ETA BEROGAILU ELEKTRIKOAK

DIPUTAZIOA 7 # TLF. 943 17 66 08 # ERMUA  
 BIDEBARRIETA 33 # TLF. 943 70 28 33 # EIBAR

# Pub Dakota

Probaleku, z/g  
 Ermua (Bizkaia)  
 dakotaermua@hotmail.com

## MALLABIKO Herriko taberna

Eguneko platerra (3€), menua,  
 plater konbinatuak, bokatak,  
 pintxoak, kazolak...

\* Bazkari eta afariak  
 parrillan (enkarguz):  
 txuletak, arraina...

Enkarguak:  
**943 174 952**  
 (asteartetan itxita)



## ANDER ABENDIBAR, 'IRAKURRI, GOZATU ETA OPARITU' ZOZKETAN SARITUA

Aurtengo 'Irakurri, Gozatu eta Oparitu' ekimenaren bigarren zozketan Ander Abendibar ermuarra izan da garaile. 10 urteko gaztetxohonek liburu sorta eta 30 euroko erosketa-txekea jaso du. Uztailearen 23ra arte jarraituko du martxan ekimenak eta bitartean, Udal Liburutegian euskarazko liburuak maileguan hartzen dutenek %25eko deskontu txartela jasoko dute Maribel edo Xiripot liburu-dendetan liburuak erosteko (%50 Euskal Biruseko bazkide direnek). Gainera, azken zozketan parte hartzeko aukera egongo da.

## AHOLKULARITZA JURIDIKOA ESKUALDEKO ENPRESENTZAT

Debegesak hitzarmena sinatu berri du enpresa-aholkularitza juridikoan diharduen 'Mendoza & Santos Abogados' erakundearekin, zuzenbideko gaietan aholkularitza jaso nahi duten Debabarreneko enpresek lehenengo kontsulta doan izan dezaten. Interesa dutenek 943 820110 telefonora deitu dezakete.

## Eleazar Raya, IMH sarien ikasle ohi aipagarria

Soraluze S. Koop-eko zuzendari komertziala den Eleazar Raya ermuarra, ikasle ohi aipagarria izendatu dute IMH sarien IX. edizioan. Elgoibarko Makina Erremintaren Institutuak (IMHK) antolatutako sarien gaia balioaniztasuna eta nazioartekotzea izan da aurten eta ekainaren 23an burututako ekitaldian eskultura korporatiboa jaso zuen ermuarrak aitortzaren seinale. Eleazarrek (1979) Industri Ekipoen Mantenamenduko Goi-Mailako heziketa zikloa ikasi zuen IMHn 1997-1999 urteetan eta azken urtean Etxe-Tar enpresan egin zituen praktikak. Praktikak amaitu ondoren, IMHn jarraitu zuen Txandakako Ingeniaritza ikasten, alternantzia Etxe-Tarren eginez. Atzerriko misioa (atzerriko lan egonaldia) Frantzian egin zuen eta ikasketak amaitzean Etxe-Tarreko I+G arloan jarraitu zuen lanean. Egun Soraluze E. Koop-eko zuzendari komertziala dela azaldu digu Edurne Bilbao, IMHko prentsa arduradunak. Zorionak Eleazar! (*Argazkian, AFMko Zuzendari Nagusi eta IMHko Presidentea den Xabier Ortueta ezkerrean, eta Eleazar Raya eskuman*).



## Scorpio tabernak 25 urte bete ditu

1986ko ekainaren 21ean zabaldu zen Scorpio taberna Zubiaurre 21ean. Jesús Ángel Rioja eta bere koinatua den Riki Gonzálezek ekimena izan zen, nahiz eta handik urtebetera Rikik taberna utzi zuen. 25 urte hauetan hamaika pasadizo bizi izan ditu jabeak barra atzean. Esaterako: Zabaldu eta bi egun geroago, Gaztetxeko istiluak zirela medio, Guardia Zibila tabernara sartzen saiatu zen, ateari bi tiro eman eta ke botreak bota zizkietela kontatu digute. Aurtengo ekainean, 25. urteurrena ospatzeko, hainbat ekimen burutu zituzten Scorpio: ostiralean, pintxoak egin zituzten eta larunbatean, berriz, oihu heavyen eta garagardo pitxerren lehiaketa eta Judas Priesten kontzerturako sarreraren zozketa egin zuten, besteak beste. "Ekimen txikia antolatu nahi genuen, baina kartelak ipini genituenez eta Facebook-en bitartez iragarri genuenez, jende asko etorri zen gure 25 urteak ospatzera: betiko bezeroak, noizbehinkakoak, gaztetxoak... Oso pozik gaude!", dio Anur Riojak, Jesús Ángelen semeak. Horregatik, hainbeste urtetan tabernara etorri eta etortzen jarraitzen duen orori euren esker ona adierazi nahi diote.



## Javier Villalobos eta Jorge Vegari omenaldia

Uztailearen 9an omenaldia egin zitzaion Javier Villalobos eta Jorge Vega kirolari ermuarrei. Ekitaldia San Lorenzo ikastetxean burutu zen. Bertan Kultura, Gazteria eta Hezkuntza eskuordetzaek dituen Lorena Lópezek parte hartu zuen eta Antonio Cid-ek entrenatzen dituen herriko eta kanpoko kirolariek baita ere. Era berean, herriko kirolari nabarmenei saria eman zitzaion: Leire Gorritxategi eta Ander Santos atletei, Errotabarri eskubaloitaldeko Irene Onekari, Peio Goikoetxea txirrindulariari, Ermua futbol taldeko Andoni Blanco eta kadetei eta Saltzaileak areto-futboleko Sergio Fernándezi.

OSASUNA • ESTETIKA  
EDERTASUNA

Marfil

Ile-apaindegi bat  
baino gehiago!

Egokitutako burua  
garbitzeko konketa

943 17 28 09 • Goienkale 12

OINAK

LEIRE MAYORA  
PODOLOGOA

Erdikokale 1, 1. A  
48260 Ermua  
© 943 17 47 44

SAGARDUI  
poltsak

Zubiaurre, 29 - Ermua • 943 170305

# Ondo pasa Santixauetan!!



## **UZTAILAREN 24a, IGANDEA**

- **16.00:** Patxi plazan, MEZUA DUTEN KAPELEN BANAKETA.
- **18.30:** Tratu onen aldeko plataformak ESKUMUTURREN BANAKETA egingo du Orbe kardinalaren plazan.
- **19.00:** 'Irulitxa' musika-bandak alaituriko TXARANGEN AURKEZPENA eta ohiko KALEJIRA herriko kaleetan zehar.
- **22.00:** MUSIKA JAIALDIA Valdespina parkean: Aiumeen basoa, Legen beltza eta DJ jaia.
- **23.00:** DANTZALDIA Orbe Kardinalaren plazan Esmeralda orkestrarekin.



hanigan's  
Irish TAVERN

Gosari, bazkari eta afariak  
-eramateko prestatzen dugu-

Pintxoetan eta  
garagardoetan aukera zabala.

Astegunetan 7:00etan zabaltzen dugu.  
Zapatu, domeka eta jaiegunetan, 10:00etan.

Komentukua z/g · 943030527



Etkez-etxeko banaketa  
Eguneko artisauro-egintza

Egunero zabaltzen dugu  
Enkargoak jasotzen dira



Diputazio kalea z/g (San Pelaio parkean) · 943 17 68 03



**UZTAILAREN 25a, ASTELEHENA**

- **4.00-6.00:** Esmeralda orkestrak GAUPASA girotuko du.
- **7.00:** TXOKOLATE-JANA plazan.
- **7:30:** Orbe Kardinalaren plazako pilotalekuan BARRUS partidak izango dira.
- **8.00:** SOKAMUTURRA izango da Ongarai Eskolako patioan.
- **12.00-14.00 eta 17.00-20.00:** UMEENTZAKO PARKEA San Pelaion.
- **12.00:** Santiago Apostoluaren elizan MEZA izango da patrioiaren omenez.
- **12.30:** HERRI-KIROLAK plazan. HARRIJASOTZAILEAK: Iñaki Perurena, Inaxio Perurena, Zelai-Luze eta Landarbide. AIZKOLARIAK: Bihurri eta Zelai II. IPARRALDEKO JOKOK: Zelai-Luze eta Landarbide. GAZTEEN ARTEKO TXAPELKETA: Zelai III, Zelai IV, Bihurri II eta Ureta.



- **12.30:** Nazareteko (Valentzia) 'Centre de música y danza' taldearen eskutik KALEJIRA.
- **17.00:** San Pelaioko Bolatokian BOLO-PALMAko SANTIXAUAK 2011 SARIA.
- **17.00:** Aritzmendi pilotalekuan PROFESIONALEN ARTEKO ESKUPILOTA PARTIDAK: Mtz. de Irujo - Merino II // Idoate - Zubieta.
- **19.00:** Orbe Kardinalaren plazatik irtenda, ERRALDOI ETA BURUHANDIEN KALEJIRA Ondalan konpartsaren eskutik.
- **19.00:** KALEJIRA Foulareda taldeko gaita-joleen eskutik.
- **20.00:** LARRAINDANTZA izango da Orbe Kardinalaren plazan, nahi duen guztiak parte hartzeko.
- **20.30:** Orbe Kardinalaren plazan EUSKARAREN ALDEKO TOPA-KONPROMISOA.
- **22.00:** Musika elektronikoaren JAIALDIA parkean: Iñigo Kriptonita eta Ermuko Dj-ak.
- **22.30:** Markeliñe taldeak 'Anomalías magnéticas' KALE IKUSKIZUNA eskainiko du San Pelaiotik hasita.
- **23.00:** Orbe Kardinalaren plazan Fabulosa orkestraren DANTZALDIA.






### UZTAILAREN 26a, ASTEARTEA

- **7.00:** TXOKOLATE-JANA Orbe Kardinalaren plazan.
- **7.30:** BARRUS partidak Orbe Kardinalaren plazako pilotalekuan.
- **8.00:** SOKAMUTURRA izango da Ongarai Eskolako patioan.
- **12.00-14.00** eta **17.00-20.00:** HAURRENTZAKO PARKEA San Pelaioko plazan.
- **12.00:** NAGUSIEI OMENALDIA egingo zaie eta SARIAK entregatuko zaizkie Nagusien Etxeak antolatutako lehiaketa ezberdinetako irabazleei.
- **12.30:** Orbe Kardinalaren plazatik irtenda, ERMUAN KANTUAN KALEJIRARI emango zaio hasiera.
- **13.00:** Alboka Musika Eskolako Bandak KONTZERTUA eskainiko du Orbe Kardinalaren plazan.
- **14.00:** Aritzmeni Pilotalekuan Nagusien Etxeak HERRI BAZKARIA eskainiko die aiton-amona bazkideei.
- **18.00:** ESKU-PILOTA partidak izango dira Orbe Kardinalaren plazan: Elordi-Mendibe // Calleja - Salutregi Azpiri - Díez Egiguren // Uriola - Aretxabaleta.



- **19.00:** Patxin eta Potxinek PAILAZO IKUSKIZUNA eskainiko dute Orbe Kardinalaren plazan.
- **19.00:** KALEJIRA Irulitxa musika-bandak alaituta.
- **19.00:** KALEJIRA 'Lagunak' eta 'Gure Txokoa' txarangen eskutik.
- **20.00:** LARRAINDANTZA Orbe Kardinalaren plazan.
- **22.00:** MUSIKA JAIALDIA parkean: Egara eta Dj jaia.
- **22.30:** Kataluniako Atempo Circ taldeak KALE IKUSKIZUNA eskainiko du San Pelaioko plazan.
- **23.00:** Vulcano Orkestrak DANTZALDIA alaituko du Orbe Kardinalaren plazan.





### **UZTAILAREN 27a, ASTEAZKENA**

- **7.00:** TXOKOLATE-JANA Orbe Kardinalaren plazan.
- **7.30:** BARRUS partidak Orbe Kardinalaren plazako pilotalekuan.
- **8.00:** SOKAMUTURRA izango da Ongarai Eskolako patioan.
- **10.00-11.30:** Ermuko Merkataria eta Ostalari eta Merkatu Plazako dendarien elkarteek arroza banatuko dute plazan. Ondoren, PAELLA LEHIAKETARI ekingo zaio, haur eta helduen kategorietan.
- **11.00:** Valdespinako Markesaren parkean SARDINA BANAKETA nahi duen guztiarentzat.
- **12.00-14.00** eta **17.00-20.00:** UMEENTZAKO PARKEA San Pelaion.
- **12.30:** Macjeara's jazz bandaren KALEJIRA.
- **14.00:** Paella lehiaketara aurkeztutako platerak DASTATUKO dira. Ondoren, ohiko HERRI BAZKARIA.

- **18.00:** ERROMERIA Orbe Kardinalaren plazan, Lotxo taldeak alaituta.
- **19.00:** Paella lehiaketaren SARI-BANAKETA egingo da plazan.
- **19.15:** Orbe Kardinalaren plazan AURRESKU ETA LARRAINDANTZA nahi duen guztiarentzat.
- **20.00:** ERROMERIA Lotxo taldeak alaituta.
- **23.30:** Irulitxa musika-bandaren ONGI ETORRIA Orbe Kardinalaren plazan.
- **00.00:** SUZIRIAK Ongaraiko parkean. Ondoren KALEJIRA Orbe Kardinalaren plazaraino eta bertan jaiei agurra emango dien AGUR JAUNAK.
- **00.30:** JAIEN AMAIERA: Micky abeslariak kontzertua eskainiko du plazan.



**ZAPPA  
TABERNA**

**San Pelaio 16**



**GIROA**  
Kafe eta pintxotan espezialitatea

HAMBURGUESERIA  
**TITANIK**



**Cantabria 2 · 48260 ERMUA (Bizkaia) · 943 17 67 83**

**TXANTXIKU**



# MARIAN RODRIGUEZ

## - Zerk ekarri zintuen Er-mura?

Maitasunak. Durangon nenbilen lanean, dibortziatuta nengoen eta gaur egungo nire bikotekidea ezagutu nuen. Bera ermuarra denez...

## - Nola ezagutu zenuten elkar?

Ni masajista lanetan ari nintzen eta bera nire kontsultara etorri zen. Horrelakoa da maitasuna!

## - Asko sufritu duzu bizitzan?

Lehen senarrarekin oso gaizki pasa nuen. Dena edukizetik ezer ez izatera pasa nintzen. Banaketa ere oso gogorra izan zen, baina pixkanaka aurrera egiten jakin dut.

## - Lan ezberdin asko egin-dakoa zara...

Ez naiz geldi egoteko jaio. Dagoenean, lanari heltzeko ez dut sekula arazorik izan. Tabernan, sukaldari, gimnasio batean monitore lanetan, dendan... denetarik egin dut. Ermuko jendeak eskuzabaltasunez hartu izan nau beti eta esker-tzen diet bihotzez.

## - Ikasketarik egiteko aukerarik izan duzu?

Zuzendaritza idazkaritza eginga daukat eta informatika, sukaldaritza eta beste makina bat ikastaro ere bai.

## - Zerk galarazten dizu loa?

Nire 2 semeekin bizi ezin izanak. Txikiena bere aitarekin bizi da eta nagu-



**Bilbotarra jaiotzez nahiz eta ia bizitza osoa Durangoko San Fausto auzoan eman. 47 urte. 2 semeren ama eta 6 anai-arreben artean zaharrena. Lana gogotik egindako emakumea. Bizitzan asko sufritzea tokatu zaio, halere, poliki-poliki aurrera egiten asmatu du. Pertsona irekia, alaia eta hizlari fina.**

sia bere kasa neskalagunarekin.

## - Pelikularen bat?

Akzioa daukan edozein.

## - Eguneko zure momentua...

Goizean jaiki, gosaltzen hasi eta zigarroa pizten dudan hori.

## - Zure burua asko zaintzen duzu?

Jendeak uste baino gutxiago! Baina pixka bat apaintzea beti izan dut gustuko.

## - Zerk sortzen dizu mina?

Benetan maite dudan ba-

tek edo lagun-min batek huts egiteak.

## - Egunkaririk irakurtzen duzu?

Egunero lan eskaintzak eta munduaren berri jakitea interesatzen zait.

## - Bizio bat?

Zigarroa erretzea.

## - Zerk ematen dizu indarra, egunero, aurrera egiteko?

Lanaren bitartez zerotik hasi eta eraiki dudana ikusteak.

## - Munduko txoko bat?

Dominikar Errepublika.

## - Amets bat?

Nire kontura negozio bat irekitzea.

## - Nahi baina egin gabe duzun gauza hori...

Nire buruari tarte gehiago eskaintzea. Sarritan besteentzat eta besteengatik bizi naizela ere pentsatu izan dut.

## - Gustuko platera...

Oso jatun ona naiz, baina bat aukeratzekotan, makarroiak, txanpinoi eta natarekin.

## - Kezka bat...

Zahartzarora iritsi eta kafean eskale bezala amaitzea.

## - Oporretarako plana...

Asturias aldera joango gara.

## - Internet?

Moldatzen naiz. Facebook-aren bitartez semeekin eta senideekin komunikatzen naiz.

## - Santixauak badatoz...

Senarra gaixo daukat eta ez didate inolako zirrara berezirik eragiten. Lanean izango naiz Her-gako sukaldean, baina tragoxkaren bat hartu beharko da.

## - Hemendik urte batzuetara nola ikusten duzu zure burua...

Momentuz egunerokoak kezkatzen nau. Geroak ere bai noski, baina hobe momentuz daukanari ondo eustea.

Asier Ibaibarriaga

**san pelayo**  
clínica dental hortz klinika

San Pelayo 5, 1º  
Ermua (Bizkaia)

Olatz Garcia Arregui

943 17 04 04

Ferretaria / Burdindegia

**ANBOTO**

- \* Burdindegia
- \* Tresneria
- \* Sarrailagintza
- \* Giltzak / Aginte automatikoak
- \* Ontziteria / Kopak / Mahai-tresnak
- \* Opari artikuluak

Zubiaurre 25, Ermua ☎ 943 17 69 76 @ fer\_anboto@hotmail.com

**MUGA**

**KILOGRAMO**

San Pelayo 4A behea  
Telefona: 17 64 77  
ERMUA

# Munduko txapelketa jokatu du Arantza Moreno atleta ermuarrak

**E**dozein kirolarik amestuko lukeena lortu du Arantza Moreno ermuarrak 16 urterekin: munduko xabalina-jaurtiketa txapelketarako sailkatzea, alegia. Uztailaren 5 eta 10a bitartean Lillen (Frantzia) izan zen txapelketan munduko 14. postuan sailkatu da Bidezabal Atletismo Taldeko gaztea. Munduko txapelketara heltzeko, ordea, lan handia egin du eta bere garaipen zerrenda ikustea baino ez dago. Aurtengo Espainiako Txapelketan iaz baino marka txikiagoak izan dira eta horrek lagundu dio garaipena lortzen. *“Espainiako iazko txapelketan baginen hiru oso marka antzerakoak genituenak eta zailagoa egin zitzaidan. Aurten, aldiz, maila ez da hain altua izan”*, adierazi du Morenok. Munduko txapelketa baina, beste kontu bat izan da eta horrela bizi izan du berak: *“Jendeak oso marka onak zitu. Ni gazteena nintzen, ez nintzen ondo moldatu xabalinarekin, ez baitzen nire, belaunean min neukan eta amorrua dut nire marka ezin izan dudalako lortu. Dena dela, joatea bakarrik ametsa izan da eta nolabait urte osoko lanaren errekonozimendua ere”*.



Horrelako froga bat prestatzeak izugarriko lana eskatzen du. Teknika etengabe lantzea, gauza bera behin eta berriro errepikatzea eta perfektionatzea eta egunero bi orduz entrenatzea. *“Urte osoan ariketa antzerakoak egin ditugu teknika hobetzeko. Bi egunez Ermuan entrenatu naiz eta Durangora eta Bilbora joan naiz astean hirutan teknika lantzeko. Hau da, xabalina nola bota, gorpuzaren postura zein izan be-*

*har den. Kanpotik ematen du erraza dela, baina asko landu behar da”*, azpimarratzen du atletak. Horrez gain, Espainiako selekzioarekin hilean asteburu batean Leonera joan dira entrenamenduak egitera.

Alde fisikoaz gain, arlo psikologikoa ere oso garrantzitsua da kirolean eta horretan ez du zalantzarik Morenok. *“Lolorekin lan handia egiten dugu zentzu horretan. Asko hitz egiten dugu eta izugarri laguntzen*

*digu. Ikasi dut egunero ezin direla gauzak ondo atera. Gauzak gaizki doazenean nire buruari esaten diot ondo joan daitezkeela eta ez dut pikutara dena botatzen”*. Lolo Garcia entrenatzaileak Arantzaren hobetzeko grina eta gaitasuna goraiipatzen ditu, baina batez ere egiten duen esfortzua. *“Esfortzuak eta hobetzeko nahiak edozein titulu baino gehiago balio du. Arantza atleta oso ona da eta pertsona hobea”*.

**ILEAPAINDEGIA**  
**Izaskun**  
 Goienkale, 9 (Plaza San Martin)  
 48260 Ermua Bizkaia  
 Tel. 943.17 66 90  
**ILEAPAINDEGIA**

**Yoga eskola**  
 Sanatana  
 Dharma  
 Irailaren 5ean,  
 astelehena,  
 hasiko dira  
 berriro klaseak.  
 Animatu!!  
 San Roke 24, behea  
 943748593 · 685722131 (Idoia)

**CITROËN**  
**AUTOS AMEDI**  
 Zearreko buelta eraikina 3, L8 pab.  
 Tel. eta Faxe. 943 17 04 14





### Kirolari amorratua

Atletismoa eta eskubaloaren artean bihotza zati-tuta du Arantza Morenok, baina argi du bietan maila altua mantentzea gero eta zailagoa egiten zaiola. "Aurten hiru egunetan atletismoan aritu naiz eta eskubaloian bi egunetan. Datorren urtean nire helburua atletismoa izango da eta eskubaloia ahal dudan neurrian".

Ez du bere bizitza kiroltik gabe ikusten. "Kirolak ematen dit ni ondo egotea, ondo sentitzea nire buruarekin eta beste modu batean izango ez nituen esperientziak bizitzeko aukera. Lagunekin eta familiarekin egoteko denbora murrizten dit, baina handik edo hemendik ateratzen dut denbora haiekin egoteko", dio Arantzak.

Gorputzak muga jarri arte aurrera jarraitzeko as-



moa du atleta ermuarrak, baina ez du erraz ikusten xabalina-jaurtiketaz bizitzea, "kirol gehienak bezala, gizonen arloa" dela azpimarratzen du. Badira Euskadiko Federazioak ematen dituen bekak, baina erakundeen aldetik laguntza eta babes gehiago behar dela dio Lolo Garciak. "Batzuetan ikusezinak garela iruditzen zait. Egia da banakako kirola dela eta gutxitan gaudela Ermuan, baina Udalaren aldetik babes gehiago behar dugu guztiok: kirolariek eta baita entrenatzaileek ere. Gu desagertzen bagara, atletismoak ez du aurrera egingo. Ermuan izugarritzko taldea dugu: 100 lagun inguru eta harrobi bikaina; hortik ateratzen dira atleta onak. Arantzak lortu duena izugarritzkoa da, baina jende gehiago dago eta denbora eman behar zaie".

Informazio gehiago:  
[www.atletismoermua.com](http://www.atletismoermua.com)  
 Alazne Aiestaran

### ARANTZA MORENEN GARAIPEN ZERRENDA

#### BENJAMIN

Bizkaiko Kros Txapelduna

#### ALEVIN

Bizkaiko Kros Txapelduna.

Altuera jauzian, 2 kg pisuko jaurtiketan eta 1000 metrotako Txapelduna.

#### INFANTIL

Bizkaiko Kros Txapelduna birritan lasterketa guztiak irabazita.

Bizkaiko pisu-jaurtiketan txapelduna, 1000m eta xabalina.

Euskadiko txapeldunorde 1000 metrotan.

#### CADETE

Bizkaiko Kros Txapelduna.

Bizkaiko XabalinaTxapelduna, pisu-jaurtiketan eta 600 metrotan.

Euskadiko Xabalina Txapelduna, pisu-jaurtiketan eta 600 metrotan.

Espainiako Xabalina Txapelduna 3 aldiz. 44.64 txapelketetan errekorra lortuz.

#### JUVENIL


Lehenengo urtea kategorian honetan (2011-07-01)

Bizkaiko Xabalina-jaurtiketan txapelduna.

Euskadiko Xabalina-jaurtiketan txapelduna.

2 aldiz Xabalina-jaurtiketan Espainiako txapelduna eta 5 pisu-jaurtiketan

Euskadiko Juvenil-Junior kategorian errekorra.



LEIRE GORRITXATEGI  
(13 urte)

Xabalina jaurtiketan orain dela urtebete hasi zen eta Espainiako xabalina-jaurtiketa txapelketan 4. postua lortu du aurten. Krosa, xabalina eta eskubaloia uztartzen ditu eta hirurak ditu gustuko. Oso urduria dela dio Leire Gorritxategik eta "urduritasuna kontrolatzea" egin zaiola zailena Espainiako Txapelketan.



**"Adituak gara ondo elikatzen irakasten"**

AINARA IRIONDO ANSOLA  
Giza elikaduran eta Dietetikan Diplomataua

Komentukua 1, behea  
943 17 63 72

## ONAINDIA HARATEGIA

**Etxean egindako odoloste eta txorizoak**



Kantabria zeharbidea 1  
48260 - ERMUA

Tel. 943 10 85 44  
Mug. 678 64 85 41




Ileapaindegia  
Estetika

Tel: 943 03 17 56      Diputazio, 5      ERMUA



## PUB YOMY

**Zubiaurre kalearen bihotzean**

# Nora zoaz oporretan?

Ziurrenik gehien egiten den galdera udako oporrak hurbiltzen direnean. Ze, oporretan, herritik kanpo joan behar da, ezta? Horregatik egun hauetan gure begirada bidaia agentzietako iragarrietara joaten zaigu, eta Interneten denbora pila galtzen dugu hegazkinak, kanpinak edo hotelak begiratzen: Argentina, Maroko, Londres, Vietnam... edo Asturias, Galizia, Landak, Kanariak, Salou edo Errioxa. Batzuk urrutiago doaz, besteak etxetik gertuago, baina berdin du... galdera beti bera da: "Nora zoaz oporretan?"

Baina, zergatik dugu kanpora joateko behar hori? Zergatik ez ditugu oporrak aprobetxatzen herrian lasai egoteko? Bale, egia da, gure herrian ez dagoela gauza

handirik egiteko, ia dena itxita dagoela, jende gutxi... Tira, abuztuan kanpora joatera bultzatzen gaituen herria dugu. Berdin du jairik jai, hondartzaz hondartza edo mendiz-mendi... baina kanpora goaz. Gainera gauza bat esango dizuet: drogek bezala, bidaia-tzeak ere engantxatzen du! Horregatik, behin hasita, urtero behar dugu gure bidaia-dosia.

Bidaiatzen normalean egiten ez ditugun gauzak egiten ditugu, eta izaeraz animosoago gaude! Norakoaren arabera, batzuetan deskantsatu egin dezakegu, besteetan laneko estresa kendu, besteetan jende berriarekin harremanak izan, ohitura eta kultura berriak ezagutu, besteei lagundu... Bidaiatzen aske senti-




*Jabi Vidal*

tzen gara. Berdin du nahiago duzun hondartzara joan, mendira, hiri handietara edo galdutako herri txikienera...

Azkenean, garrantzitsuena da ezagutzen dugun tokiaz gozatzea, edozein dela ere. Ondoren esperientziak dira gordetzen ditugunak: paisaiak, janarien zaporeak, usainak, ahotsak, soinuak, irudiak, harremanak, anekdotak... eta bueltatzeko gogoia. Hau gogoratzeak ere zoriontasuna eragiten digu, nostalgia puntu horrekin doan irribarrea.

...Tira, abuztuan kanpora joatera bultzatzen gaituen herria dugu



**IKASTOLA**  
38 urte Ermua euskalduntzen



**TXINDURRI**  
**TALDEA**  
Tokian tokiko

**Harategia**



**M. LAZKANO**


**BERTOKO OKELAK**  
*Geure Baserrian*  
*Hazitako Txalak*

GEUK GIZENDUTAKO  
ABELTZANTZA

Merkatua, 36-37 zbk.k  
Tfnoa. 943 17 05 84

**Ermua**

**PRO**



- ARRAINDEGIA  
- ITSASKIAK  
- ARRAIN FRESKOAK ETA  
IZOZTUAK

**ESKAINITZA BEREZIA**  
**OSTIRALERO**

Zubiaurre, 21 baxua  
Tfnoa. 17 16 96 (despatxua)  
" 17 24 33 (etxea)  
Merkatu Plaza, Tfnoa. 17 41 59  
**ERMUA**

**ALOKAIRUA**

Lana dela-eta, epe finko baterako Ermura etorri behar bazara, etxea alokatuko nizuke Ermuko erdialdean. Guztiz jantzita eta igogailuarekin.  
© 636257546



Abuztuaren 3an  
Zorionak Aner zure guraso, aitxitxa-amama eta izeba-osaben partez.



Uztailaren 23an  
Zorionak Ixone zure urtebetetzean eta musu handi bat Gaizka, aita eta amaren partez.



Uztailaren 26a  
Zorionak amatxo!! Musu handi bat denon partez.



Abuztuaren 27a  
Zorionak Aner!! Ondo pasatu oporrak!! Musu handi bat!!



Abuztuaren 25a  
Zorionak Iraia!! Jada 3 urte!! Aurten nagusien ikastolara, eh!! Musu handi bat.



Uztailaren 9an  
Zorionak Mikel eta musu handi bat etxeko guztion partez.



Uztailaren 27a  
Zorionak Iker zure 6. urtebetetzean. Muxu asko-asko etxeko guztien partez.



Irailaren 10ean  
Uda ostean ezkonduko zarete, dena prest? Zorionak bioi eta ondo pasa!

**Azken eguna:  
Irailaren 13a**

**URRETA** burdindenda

- \* Etxea
- \* Tresneria
- \* Brikolaia
- \* Rielak
- \* Giltzak
- \* Zerrailgintza
- \* Kit altzariak

Zeharkalea 8 Tel: 943 17 65 61 ERMUA

**ARRIETA CORDEVI**

Elektratresnak, telebistak, bideoak, musika aparatuak...

...prezio eta kalitate ezin hobean.

VI. Centenario Kalea, 5 ERMUA

**IZOTZ**  
IZOZTUAK

ERMUA Merkatua  
54-55 postuak  
943174101

ARRASATE Merkatua  
943770598



**Enter**  
INFORMÁTICA

SALMENTAK / IRAKASKUNTZA / ZERBITZU TEKNIKOA

VI Centenario 19, behea  
Tel. 943 17 90 37  
e-maila: enter-i@arrakis.es

**ELUR**  
ESTETIKA-EDERGINTZA

- Depilazioa
- Elektrologia
- Gorputz eta Aurpegirako tratamenduak
- Masajeak
- Pedikura
- Manikura (parafinarekin)
- Solariuma
- Laser depilazioan espezializatuak
- Kontsulta mediko-estetikoa

**Aldapa 1** **943 17 60 52**

**MALLABIA  
1977**

Argazki honetan Envasako langileak agertzen dira. Lehen ilaran behetik hasita: Jose Luis Unzueta (Abendibar), Maria Teresa Astarloa (Egia), Lourdes Ariznabarreta (Malengo), Maria Jesus Astarloa (Apoita) eta Belen Gallastegi (Onandi). Bigarren ilaran: Isabel Elgezua (Larriñe), Milagros Pagaldai (Fermiñene), Javier Astaloea (Egia), Angel Saceda (Ermua), Mari Carmen – (Eibar), Ana Rosa Ariznabarreta (Malengo) eta Jose Ignazio Samper (Ermua).

**ERMUA  
1973**

Zezen Eguna eta paellagintza: camping-gas pare bat, ura berotzeko lapikoa eta paellera. Arrozakin batera, sukaldariaren toke magikoa eta ozpin txorrostada bat. Umorea eta gatza soinean daramate. Ezkerretik esku-mara, tente: Mari Tere Ganuza, Amaia Gisasola, Lourdes Escobar, Milagros Formoso eta Mari Nieves Urreta. Eserita: Mari Carmen Lauzurika, M<sup>o</sup> Luisa Oti eta Vicenta Linares. Kamiseta zuri bana ipinita, jaiari talde usaina emateko berdin jantzitako lehenetarikoko koadrila izan zen.

  
dulce  
bebé  
**DULCE  
BEBÉ  
PEQUE'S**

**Eskaintza  
handiak  
pueri-  
kulturan**

**Zubiaurre 30 · ERMUA  
943 170 005**

  
**blush**

Santiago Plaza 3, behea · ERMUA  
943 10 82 42

  
**NEREA IÑIGUEZ  
HORTZ KLINIKA**



San Inazio 4 - Ermua  
943 030 512 / niklinika@gmail.com

  
**URDAITEGIA - CHARCUTERIA  
MAYTE**  
Plaza del Mercado  
Tel. 17 24 12  
**ERMUA**

**Maiatzaren 15ean 'Haserretuen' edo 'Suminduen' mugimendua sortu zen. Euskal Herrian eta estatuan demokrazia partizipatiboagoa lortzeko kanpaldiak eta bilerak egiteari ekin zioten herritarrez osatutako hainbat taldek eta egun, aldarrikapen-zerrenda luzea dute.**

**Suminduen aldarrikapenen berri baduzu?  
Noiz arte iraungo du bizirik mugimenduak?**

Bai, aldarrikapenen berri dut eta horietako batzuekin ados nago. Hala ere, pentsatzen dut batzuk benetan haserre daudelako egiten dutela lan.

Beste batzuk, aldiz, suminduen kontura bizi nahi dutelako sartu dira honetan. Mugimendua indarra galtzen joango dela uste dut eta asko jota, urtebete iraungo duela esango nuke.



**Adolfo Lameiras 'Etxebe', 35 urte**



**Iñaki Gómez, 34 urte**

Gutxi gora behera ezagutzen dut. Mugimendua hasieran originala zen, baina denborak aurrera egin ahala, hutsalduz joan dela esango nuke, batzuek onurak atera nahi izan dituztelako. Mugimendua bera jadanik bukatu dela uste dut.



Zerbait entzun dut baina ez dut aldarrikapen zehatzen berri: gobernu eta politikarien kontra daude, aberatsak gero eta aberatsagoak direla eta pobreak gero eta pobreagoak, diote. Baina nola konpondu daiteke hori politikatik kanpo? Mugimenduak egun batzuetako 'boom'a izan zuen, gaur egun telebistan ez baitute honen inguruan ezer aipatzen. Bakoitzak bere bizitza du eta horrek ezin zuen betiko iraun.

**Jone Agirregomezkorta, 34 urte**

Mundu osoan daude suminduak! Sistema, politika eta ezberdintasun sozialen kontra daude. Gertatu beharra zegoen: azkenean, zapalduen dagoena altxatu behar da eta gure herrian kexatzeko askatasuna dugu. Euskal Herrian ez du horrenbeste eraginik izan baina gobernuak euren aldarrikapenei erantzuna eman arte mugimenduak bizirik jarraituko duela uste dut.



**Ricardo González, 63 urte**

Hauteskundeak hasi aurretik sortutako herri mugimendua dela esango nuke. Euren aldarrikapenak ez ditut ondo ezagutzen, baina orokorrean sistemarekin bat ez datozela eta gobernuko ordezkariekiko identifikaziorik ez dutela sentitzen esango nuke. Noiz arte iraungo duen? Ez dakit, egia esan orain gai horren inguruan ez da gauza askorik entzuten.



**Itsaso Pradera, 24 urte**



**Aitziber Lopez, 40 urte**

Euren aldarrikapenak zehatz-mehatz jakin ez arren, gaur egungo sistemarekin bat ez datozela uste dut. Euren helburu nagusia gazteen parte hartzea sustatzea dela uste dut; politika eta ekonomia parte hartzaileagoa sortuz. Nik uste, krisiak iraun arte hor ereongo direla.

**Bar London**  
Komentukua 2, Ermua  
Tlf: 943173312

**akerlei**  
HEZIKETA-ZENTROA

Bizkaia etorbidea 5  
48260 - Ermua  
943 17 66 32  
akerlei@akerlei.com

- Ingelesa, frantsesa eta alemana.
- Cambridge azterketak.
- Ume eta helduentzat.

**...matrikula zabalik!**

**TRABAKUKO IGOERA**



**Abuztuaren 14an:**  
Trabakuko igoera herrikoia bizikletarekin. Patxi plazan. 16.00etan.

**POSTAL LEHIAKETA**

Bidali zure postala irailaren 30a baino lehen Euskal Birusa Elkartera (247 posta-kutxara) eta sari hauek irabazteko aukera izango duzu: landetexe eta Spa batean egonaldiak, afaria eta erosketa txakeak.



**UDAKO ZINEA**

- Abuztuaren 1ean:**  
'Tres metros sobre el cielo'
  - Abuztuaren 3an:**  
'El aprendiz de brujo'
  - Abuztuaren 8an:**  
'Imparable'
  - Abuztuaren 10ean:**  
'El diario de Greg'
  - Abuztuaren 17an:**  
'Origen'
  - Abuztuaren 22an:**  
'La boda de mi familia'
  - Abuztuaren 24an:**  
'Town, ciudad de ladrones'
  - Abuztuaren 29an:**  
'Salidos de cuentas'
- Emanaldi guztiak 22.00etan hasiko dira, Orbe Kardinalaren plazan (Euria badago, elizako arkupetan).

Patxi López

**Santixauetan EUSKARA MINGAINEAN**



Euskal Birusa Elkartea

**OPTICA J. CASADO**

Lenteak  
Audifonoak  
Graduatutako Antiajuak  
Eguzkitako Antiajuak

Kantabria, 2  
Tfnoa. 17 33 57

ERMUA

**MIGUEL Harategia**

**TXORIZOAK ODOLOSTEAK**

Probaleku, 3  
☎ 17 05 63  
**ERMUA**  
(Bizkaia)

**mari asun**   
LORADENDA

Diputazioa 9 - ERMUA - Tel. 943 174379

**Ardo banatzailea:**

Riedel	Hugel&Fills
Avgstvs	Anima Negra
Clos Mogador	Irache
Yllera	Cillar de Silos
Cantosán	Vriego
Luis Cañas	Laurona

**DISTRIBUCIONES ARRAL**  
TELEFONOA: 943 17 60 75



**UGARO**

AHOLKULARITZA FISKALA,  
JURIDIKOA  
ETA KONTABILITATEKOA



*Mutua General de Seguros*

Fernando Orbe. ekonomista  
Juan Jose Gorritxategi. abokatua

Zubiaurre, 27  
177 postakutxa

[ugaro@ugaro.com](mailto:ugaro@ugaro.com) · [forbe@ugaro.com](mailto:forbe@ugaro.com)

943 17 43 44

Faxa. 943 17 54 58

*Euskal Birusako kamisetak  
Txikurixan salgai!!*



Helduentzat: 12



Umeentzat: 10

Santixau jai egunetan Euskal Birusak **TXIKURIXA** zabalduko du iazko leku berean.

Egun eta gaueko txosna jartzea dugu helburu, adin tarte guztientzako zabalik egongo dena. Hori dela eta, bazkide eta herritar guztioi laguntzeko aukera eman nahi dizuegu:

- Txandak eginez
- Patata-tortilak ekarriz...
- Zuen koadrilako 'erronda'n kontuan hartuz...

Lagundu nahi baduzu, deitu 688632874 telefonora

# SOR DEZAGUN ERMUAN JAI-GIRO EUSKALDUNA!!



Euskal  
Birusa  
Elkartea